



Izaskun Landaida Larizgoitia

♦ EMAKUNDE/EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Balio aldaketa, gizarte berria sortzeko giltza

DUELA GUTXI, azaroaren 25ean, Emakumearen indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, hainbat puntu lila ikusi ditugu erakunde askotako fatxadetan, etxeetako leihoetan, sare sozialetan... Kontuan izanda sinbolo hau publikoki erakustea berarekin dakarrela emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza oinarri duen indarkeriaren kontrako konpromiso aktiboa, esan daiteke euskal gizartearen gehiengoak indarkeria mota honen kontrako jarrera argia daukala. Emakundek landutako azken Emakume eta Gizonen egoerari buruzko txostenean jasotzen da EAEko biztanleriaren %82,2k uste duela genero-indarkeria dela gizartearen arazoaren artean handienetakoa.

Arazoa ez dago gazteengan bakarrik. Gazteek gure gizartean berdintasunarekin bat ez datozen jarrerak bereganatu baino ez dute egiten. Berdintasunaren kontrako jarrera hauek bizi-bizi daude oraindik, eta sugarraren antzera pizten dira gizarte eredu hau aldatu nahi duen edozein haize boladak jotzen duenean

Jakin nahiko nuke, hala eta guztiz ere, indarkeria mota honen kontra dagoela esaten duen %82,2 horretako guztiak ados dauden lehenik eta behin emakumeen kontrako indarkeria zer den definitzeko orduan, eta, bestetik, indarkeria mota hori sorrazten duten sinesmen eta balore guztiak gaitzesteko orduan. Emakundek argi dauka ezinbestekoa dela indarkeria mota horren aurka egiteko berdintasun eza betikotzen duten eguneroko jarrerak aldatzeko ahalegin handia egitea. Baina horretarako lehenengo pausoa jarrera horiek antzematen ikastea da, berdintasun eza non eta nola ematen den ikustaraztea.

Berdintasun eza betikotzen duten jarrerak antzemateko lan horretan, gazteekin egin beharreko lana da bereziki garrantzitsua. Neska batek pentsa dezake whatsappen bere bikoteak etengabe “non zaude, norekin zaude, bidali argazki bat norekin zauden

ikusteko” bezalako mezuak maitasunaren adierazgarri direla. Eta mutilak berak ere pentsa dezake bere bikoteari bidaltzen dizkion mezu horiekin guztiekin inork baino gehiago maite duela adierazten diola. Kasu batean zein bestean garrantzitsua da gazteak ohartzea halako jarrerak neskaren askatasuna eta autonomia mugatzen ari direla, eta halako jarrerak ereindako lurretik jaio daitekeela egunen batean emakumeen kontrako indarkeria.

Baina arazoa ez dago gazteengan bakarrik. Gazteek gure gizartean berdintasunarekin bat ez datozen jarrerak bereganatu baino ez dituzte egiten. Berdintasunaren kontrako jarrera horiek bizi-bizi daude oraindik, eta sugarraren antzera pizten dira gizarte eredu hau aldatu nahi duen edozein haize boladak jotzen duenean. Berdintasun ezaren kultura guztiz txertatua dago gure hedabideetan, familietan, eskoletan, tabernetan, enpresetan eta beste hainbat gunetan. Eta horren adierazle dira askotan berdintasunarekin zerikusia duten gaiei buruz arinkiaz hitz egitea, edo barreak egitea, edo emakume bati gertatzen zaionaren erru handiena bere gain botatzea, edo zalan-tzan jartzea emakume baten testigantza, edo “berdintasunaren alde nago baina ez nator bat feminismoarekin” bezalako kontraesanak entzutea.

Askotan esaten da ez garela munduan gertatzen diren arazoaren larritasunaz ohartzen gertu sentitzen ditugun arte. Zure alaba, zure iloba, zure ama, zure laguna izan daiteke genero indarkeriaren biktima. Horrelakoetan geure buruari galdetzen diogu nola den posible XXI. mendean emakume bat halako zulo beltzean sartuta ikustea.

Emakumeen kontrako indarkeriaren kontra egiteko, batetik, erroetara joan behar dugu, gure eguneroko jarrerak aztertuz. Bestetik, argi dago indarkeria mota honek erantzun iraunkorrak behar dituela. Eta bi ezaugarri horiei azken bat erantsiko nioke: erakunde, elkarte eta entitate ugariaren arteko lan bateratuaren beharra. Pertsona guztien lan bateratuaren beharra. Emakumeen kontrako indarkeriaren arazoa ez da emakumea bakarrik, gizarte osoarena baizik, eta denon artean egin behar diogu aurre. ■

